

HONDARRIBIA. IZENAREN IZANA.—Maiz galdetzen zaigu Hondarribiaren izen jatorrez, eta maiz ikusten dugu zenbait era desberdinez idatzia: Fuenterrabia, Fontarabie, Ondarrabia, Ondarrabi, Hondarribi, Hondarribia. Sei formok ikusteaz laster ohartzekoa da, hizkuntzalaritzaz askorik jakin gabe ere, zein den horren izatea.

Beraren etimologia dugu arrazoi bide. Ikus Florentino Porturen *Fuenterrabia. Notas históricas y curiosidades hasta 1969* liburua 21. orrialdean. Hor dakar lehenago Serapio Mujikak *Geografía General del País Vasco-Navarro* deritzan obra haretako «Guipúzcoa» tomoaren 741. orrialdean jarri zuen eritzi ber-bera: *ondar*, «arena» eta *ibia*, «vado».

Mugazandiko euskaldunek *hondar* H aspiratuakin ahozkatzen dute, eta pentsatzekoa da aintzinako hondarribiarrek ere horrela erabiliko zutela. Gaztelera Fuenterrabia eta frantsez Fontarabie erabilerak erakusten digu kontsonante horren lehenagoko H aspiratua erdarara aldatzean F bihurtzea baik ez dela. Eta ez da batere harritzekoa idazkera hori hain zabaldua egotea Hondarribiaren izentzat, erdara horietako agirietan lehenagotik eta maizago agertzen denez gero.

Aintzinako hondarribiarrek H aspiratua erabiliko zuten adierazpen nabaria Jaizkibel mendiaren izenean ere aurkituko dugu, bere etimologiak argi eta garbi erakusten digunez: *hai(t)z*, «peña» eta *gibel*, «detrás», = *atze*.

Badakigu bestelako eritzirik ere izan dela, baina, linguitikak eta ikerketak aurrerapen handiak egin dituztenez gero, aspaldi baztertuak daude 1882an Jose Manterolak *Euskal-Erria* aldizkarian erabiliak, bereziki V. tomoko 225. orrialdean.

Gaur egun ez dut uste inork zalantzan jartzen duenik izenaren lehen parte: (*h*)*ondar*, «arena» bezala.

Bigarren parteko *-abia*, ahozkerako hutsa baizik ez da; metatesi ximple baten araueraz erraz ulertzekoa. Gogoan izan toki-izen bat aztertzean ingurua ere kontutan hartu behar dela eta hor ditugu Hondarribiatik aski hurbil kideko atzizkidun Urdanibia eta Behobia. Horiek ere *-ibia*, «vado», sustrai bera dute. Gainera, euskal etimologieri buruz egin den libururik serioena Mitxelenaren *Apellidos vascos* izanen da eta puntu horretan ez du dudarik jartzen *-ibi*, «vado» ez denik.

Norbaitek pentsa lezake *-ibi* horrek egiten duela Hondarribi, bukaerako *-a* gabe. Baina hori ere ez da horrela. Azkeneko *-a* hori artikulua da, eta *-ibia*, «el vado» bezala irakurri behar denez.

Hondarribi, *-a* gabe, Hondarribiako hiritar bati deitzeko soilik erabili daiteke, eta jator erabili ere. Bereziki, hondarribiar leinuko pertsona herbesteetan izendatzeko. Beraz, bi gauza dira Hondarribia eta Hondarribi. Lehena hiriaren izena da eta bigarrena hiritarrarena. Nolabait esateko, hondarribiar jentilizioaren ordezeko sinonimoa baizik ez da.

Hiriaren izena ordea, argi dago, jatorriz Hondarribia dela.

*Juan San Martín*